

Idea: gizartea hobetzea hausnarketen bidez. Sortuko dugun proiektua aplikazio bat izango da. Aplikazio honek egunero galdera bat bidaliko dio erabiltzaileari. Erabiltzaileak horren inguruan hausnartu beharko du. Aplikazioan erabiltzaileak koaderno bat izango du galdera bakoitza gordeta izateko. Erabiltzaileak aukera izango du hausnarketa koaderno horretan idazteko. Hala ere, erantzuna idaztea ez da beharrezkoa izango. Aplikazioaren barnean erabiltzaileak anonimoak izango dira eta hausnarketak argitaratu ahalko dira foru batean. Hausnarketak soilik egun horretan zehar egongo dira ikusgai. Aplikazioak erabiltzeko denbora mugatua izango du. Egunean gehienez 20 minutu erabili ahalko da.

